


• ASTERO GAIA •

Zinemaren etorkizuna

Aretoak erasora

Egokitu ala hil. Teknologia berriek eragindako axioma musikak barneratua du jada eta zinema konturatzen hasi da pirateriari eta zinema-aretoen gainbeherari aurre egitea dagokiola. Soinuak lehenengo iraultza ekarri zuen zeluloidearen mundura, koloreak bigarrena, eta teknologia digitalak hirugarren iraultzari eman dio hasiera.

MIKEL GARCIA



Imax pantaila erraldoia duen aretoa, Kalifornian. Zortzi pisuko etxebizitza baten altuera eta 37 metroko zabalera du.



Home cinema bezalako aparailuei esker, zinema-aretoak egongelara eraman ditu jendeak. “Gizakiak bere kobara bueltatu nahi du eta etxe barruan egiten du gaur egungo bizimodua”, dio Ines Intxausti zinema kritikariak. Egoera berrira egokitu behar du zinemak.

“EPE LABURREAN, zinemaren merkaturak polarizatu egingo da, edo produkzio oso handiak –generoko filmak, *casting* ezagunarekin, baliabide askorekin– edo txiki, erradikal eta sakanak; erdi mailako ekoizpenak telebistara zokoratuko dituzte –AEBetan gertatzen ari den moduan–. Bigarren epe batean, handiak ere desagertuko direla uste dut eta beste medio batzuetara zuzenduko direla; are gehiago, zinema-aretoek hiri handietatik at funtzionatzeri utziko diote. Azkenik, epe luzean aretoak desagertu eta zinema museoetara eta telebistara baino ez da bideratuko. Zergatik ez? Pintore handien artelanak lehenik elizetan zeuden, ondoren jauregietan eta egun museoetan eta dirudunen etxe pribatuetan. Gizartea eboluzionatzen doa”. Zinemaren etorkizuna hitzokin laburbildu zigun Jaime Rosales zuzendari kataluniarrak, duela gutxi ARGIARAKO egindako elkarrizketan. Bera izan da, hain zuzen, *Tiro bat buruan* film luzea Interneteko areto birtual batean estreinatu duen lehen zuzendaria Espainiako Estatuan.

Ez dakigu muturreko bide hori hartuko ote duen zinemak, baina bai orain artekoaren oso bestelako norabideari ekingo diola. Datorkigun panoramari erreparatu aurretik,

“Imajinatzen zein botere izan dezakeen banaketa sare berriaren jabetza lortzen duenak? Operadore gutxi batzuek modak, ohiturak eta estetikak ezartzeko giltza izango dute”

ANTONIO CARBALLO, KRITIKARIA

dena den, begirada azkarra egungo egoerari: *home cinema* bezalako aparailuei esker, etxeetako pantaila erraldoiek eta soinu sistema bikainek zinema-aretoak egongelara eraman dituzte; kaleko salmentak eta filmak Internetetik jaisteko aukerak ere bidea eman diote horri eta ondorioz aretoak husten joan dira pixkana –azken bost urteetan Hego Euskal Herrian 2 milioi ikusle inguru galdu dituzte–. Pelikulen kontsumo kolektibotik kontsumo indibidualera igarotze horretan, gizartearen taxu berria ere nabari dela uste du Ines Intxausti zinema kritikariak: “Gizakiak bere kobara bueltatu nahi du eta etxe barruan egiten du gaur egungo bizimodua, intimitatean; areto handiaren magia galdu egin da guztiz. *Cinema Paradiso* ikusi dugunontzat, hori da zinema: esperientzia kolektiboa, jai-giroan; lehen herri osoa zihoan zinema-aretoa, eta orain herrikideekin batera ez dugu ezer egin nahi”.

Zeluloidearen desagertzea

Eta egoera horren aurrean, zein da teknologia berriek datozten urteetan ekarriko duten panorama? Ondorioetako bat argi dute aditu denek: zeluloidea desagertu egingo da eta filmen digitalizazioak hartuko dio lekukoa. Euskal Herrian

Julio Medem izan zen hi-definition sistema digitalean errodutzen lehena; *Lucía y el sexo* pelikulan erabili zuen. Zer esan nahi du horrek? Bada bobina bera, euskarri fisikoa, desagertu egiten dela eta filmak artxibo digital bihurtzen direla. Formatu digitalarekin, banaketa zeharo aldatuko da: pelikulen kopiak egitea –laborategi fotokimikoko prozesua– zen orain arte zinemaren prozesu garestienetakoa, baina orain satelite edo zuntz-optiko bidez “garraiatuko” dira pelikulak. Kostuak izugarri merkatuko dira eta kalitatea ere hobea izango da, ez direlako kopia fotokimikoak egingo, denborarekin hondatzen direnak; orijinalaren klonak iritsiko dira aretoetara.

Halaber, zinema industriaren ametsetako bat bete ahal izango du formatu berriak: filmak mundu guztian batera estreinatu ahal izango dira. Satelite edo zuntz-optikoari esker, munduan zehar barreiatutako 50.000 aretok baino gehiagok aldi berean estreinatu ahal izango dute pelikula bera. Aukera hori baliatuz, pentsatzekoa da geroz eta ohikoagoa izango dela kirol ekitaldien, kontzertuen eta oro har gertakari garrantzitsuen zuzenekoak proiektatzea aretoetako pantaila erraldoetan.

Antonio Carballo zinema kritikariak galdera egin dio bere buruari: “Imajinatzen zein botere izan dezakeen banaketa sarearen jabetza lortzen duenak? Operadore bakar batek, edo gutxi batzuek, modak, ohiturak eta estetikak ezartzeko giltza izango dute”. Carballoren aurreikuspenen arabera, publizitatea ere ez da geratuko kontrol-zirkuitu honetatik kanpo: *product placement* delakoa –modu ez zuzenean publizitatea sartzea filmetan– izugarri igoko da, eta iragarleek uneoro erabaki ahal izango dute zein aretotan eskaini nahi dituzten euren produktuak, zinema emanaldiaren eta saldutako sarreraren arabera. “Banaketaren kontrola duenak izango du produktuaren kontrola, eta hortaz, merkatuarena”.

Ines Intxaustiren ustez, teknologia diruaren alde jarriko da eta zinemak esku beretan jarraituko du: “Beste era batzuetan salduko dute, baina aretora nahiz gure etxeetara iristeko, *major* berek kudeatuko dute. Inork ez du negarrik egin zeluloidea desagertuko delako. Alderantziz, berri ona da, Japoniatik film bat ekartzeko dagoeneko ez da itsasontziz egin behar; film luzeak 30 kilo pisatzen ditu zeluloidean eta digitalean 100 film eraman ditzaitezkezu poltsikoan”. IBAIA Ikus-Entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkartearen presidentea da Joxe Portela eta iritzi berekoa da, ekoizleen ikuspegitik: “Ona izango da digitalizazioa, inbertsio handia egin behar da hasieran, baina banaketa optimizatuko du eta kostuak merkatuko ditu”.



AQUARIUM



Karlos Blasco de Imaz Plaza, 1
20003 Donostia / San Sebastián (Gipuzkoa)
Tel: 943 44 00 99
e-posta: aquariumss@aquariumss.com
web orria: www.aquariumss.com



AQUARIUM
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

Zinema-aretoen desafioa bizirauteko

Denak, ordea, ez dira hain baikorrak, kaltetu nabarmenak utziko baititu aldaketa honek guztiak: aretoen jabeak. Izan ere, zinema inoiz baino gehiago kontsumitzen du ikusleak, baina ez aretoetan. Azken urteetan, zinema-areto askok atek itxi dituzte, baina pantaila kopurua antzekoa da, negozio eredu delako aldatu dena: hots, areto handiak ixten joan dira, baina multisalak irekitzen. Hemen-dik aurrera, ostera, prozesua kontrakoa izango dela aurreikusten du Carballok: multizineak areto bakar bihurtuko dituzte, pantailaren handitasuna eta ikusgarritasuna arma garrantzitsuenetakoa izango baita plasma pantailadun telebistarekin lehiatzeko. Dagoeneko, esaterako, 200 Imax pantaila baino gehiago daude munduan –batez beste 22 metro zabaleran eta 16 altueran, munduko handienak– eta horietako bat Euskal Herrian daukagu, Barakaldon. Definizio altuko irudiaren eta soinuaren kalitatea inoiz ez bezalakoa izatea eta salaren ezaugarriak hobetzea dira aretoen apustu berriak. Hainbat aretok eserleku mugikorak ditu, usaime-na ere erabili izan dute gutxi batzuek, interakzioa eta errealitate birtuala bultzatu nahi da, eta 3 dimentsioko pelikulak eta ekoizpenak ohiko izango omen dira etorkizunean, sistema digitalak ahalbidetzen duen grabazio estereoskopikoari esker. 2009an, mundu osoan 5.900 areto 3D formaturako prestatuta egongo direla aurreikusten da.

Gainera, arestian aipatu moduan, euren burua birmoldatu eta balioanitz bilakatu beharko dira aretoak: filmez gain, dantza eta antzerki emanaldiak eta kirol ekitaldiak –munduko azken futbol txapelketak ikusle ugari bildu zituen aretoetan– proiektatzera bideratuko dira. Baita 3D formatuan ere: U2 musika taldearen kontzertu-dokumentalak harrera ona izan berri du aretoetan. Hainbat lekutan, bideojokotan aritzeko ere erabiltzen dituzte, pantaila erraldoiaren aurrean denak batera jokatzu. Eta Italiako herrixka batean, eztei-bideoa pantaila handian ikusteko ezkonberriei aretoa 300 eurogatik alokatzeak arrakasta handia izan du. Alegia, komunikazio zentro gisa ulertu beharko ditugula aretoak hemendik aurrera, dituzten aukera guztiak

Pirateria, erronka nagusia

Paradoxikoki, teknologia lagungarria izango da teknologiak berak zinema industriari sortu dion buruhauste handienaren aurkako borrokan: pirateria. Filmen kopia fisikoak desagertu egingo direnez, pelikula aretoan bertan ilegalki grabatzea izango da pirateriari geratuko zaion bide bakarrenetakoa, eta mundu osora banaketa askoz azkarrago egingo denez, lehenago ikusteko behintzat ez ditu jaitsiko filmak jendeak.

Kontuak kontu, pirateria izango da zinemaren etorkizuneko etsai eta erronka handienetakoa. Nicolas Sarkozyk Europar Batasunean aurkezturiko proposamena –Internetetik ilegalki artxiboak jaisten dituztenei abisua bidaltzea eta hirugarren oharrarekin Internet moztea– erdizka baino ez dute onartu: abisua bidaltzea bai, baina Internet moztea ez. Hainbat herrialdetan isun bakan batzuk izan badira ere, pirateriaren aurka neurri nahikoa ez dela hartzen kexu da industria. Joxe Portela zinema ekoizleak dio askotan ezjakintasuna dela pirateriaren arrazoia, euro bakarraren truke pelikulak kalitate onean jaisteko aukera ematen baitute hainbat webgunek, modu legalean.

aprobetxatuko dituztenak, eta ez soilik pelikulak eskaintzera zuzendutako sala gisa.

Digitalizazioak aretoentzako zein abantaila eta desabantaila izan ditzakeen aztertzen ari dira jabeak. Euskal Herrian ohiko diren Cinebox, Golem edo Sade biltzen dituen Espainiako Zinema-Aretoen Jabeen Federazioko komunikazio arduraduna da Borja de Benito. Berak azaldu digunez, merkatu estudio sakona egiten ari dira, kontsumitzailea aztertzeko, zinema-aretoera joatera bultzatzen duten faktoreak eza-gutzeko: zer baloratzen duen zinemaren sartzean, zer falta zaion aretoari nahiago izateko *home cinema* ikusiz etxean gelditzea. Ikerketaren emaitzak abendu-urtarrila aldera jasoko dituzte. “Behin oinarri hori edukita, desberdintasuna eskaintzeko fronte guztietatik eraso egitea da asmoa, ikusleak eskatzen digunera egokitzea. Egun jada, sala berri bat irekitzen den bakoitzean azken berrikuntzak sartzen

ditu, elementu bereizleak eskainiz publikoak zinemara erakartzeko”, argitu du De Benitok. Sarrera prezioa jaisteak ez al lukeen lagunduko galdetu diogu, baina salneurria liberalizatu dagoela eta areto bakoitzak egokien ikusten duena ezartzen duela erantzun du.

Hala ere, eta ikerketaren ondorioen zain, De Benitok dio ez dutela aretoak desagertzeko arriskurik ikusten: “Egia da aisiaren kontsumoan aldaketa bizi dugula eta lehia handiagoa dela, baina zinemak eskaintzen duen beste aparailuek eta teknologia berriek eskaini ezin dezaketena: zinemara joatearen ekintza soziala, lagunekin bildu, pelikula ikusi eta afaltzera joateko plana”.

Eduki interesgarriak, zinematik DVDra

Hainbat adituren ustez, 1970eko hamarkadan zinemak bizitu zuen ideia krisia –abentura generoari eta zientzia fikzioari esker gainditua– errepikatzen da egun. Teknologiak eta kostuen merkatzeak edozeinen esku utzi du zinema egiteko aukera; baina gauza bat da baliabideak eskura izatea eta bestea talentua edukitzea. Koldo Almandoz zuzendariaren hitzetan, lehia handiagoa den heinean produkturik txar gehiago dago eta saturazio horren erruz, zaila da produktu interesgarrietara heltzea: “Galbahea pasako duen sistema behar dugu gaur egun, aldizkari edo webgune espe-



Román Gubern zinema ikerlariaren arabera, AEBetako *studio-system* tradizioa telebistara aldatu da eta telesail estatubatuarrak dira ikus-entzunezko kultura modernoaren eredu: “Baina *Sex and the city* telesailak pantaila handira jauzi egin eta grazia guztia galtzen du, berdin *The Simpsons*-ekin” (goian). Koldo Almandozek ere telesailen alde egiten du eta Jaime Rosalesek dio zinematik museoetan bukatuko duela (behean, hurrenez hurren).



zializaturen bat, zer ikusi asmatzen lagunduko diguna. Jaialditako programatzaileek esaten digute eromena dela: 1.200 film labur bidaltzen dizkiete eta ezinezkoa da denak ikustea, aukeraketa modu egokian egitea”.

Maila oneko edukiek zinema-aretoa utzi eta telebista pantailara egin dute salto, askoren aburuz. Román Gubern zinema ikerlari kataluniarraren esanetan, AEBetako *studio-system* tradizioa telebistara aldatu da eta telesail estatubatuarrak dira ikus-entzunezko kultura modernoaren eredu: “Baina *Sex and the city* telesaileko neskek pantaila handira jauzi egin eta grazia guztia galtzen dute, berdin *The Simpsons*-ekin. Telebista mundu mailako egongela erraldoi bihurtu da, aretoetako zinema baino askoz errentagarri eta eraginkorragoa”.

Almandozen iritziz ere, krisialdia gehiago dago erakusteko moduan, produktuan baino: “Ikus-entzunezko kulturari bizi gara bete-betean eta zineman ideia krisia dago, baina inoiz baino telesail hobeak eta ausartagoak egiten ari dira. Nik pila bat disfrutatzen dut telesailekin”. Eta zergatik bideratu dira indarrak telebistara? Almandozen arabera, telesailek gaur egungo bizimoduari egokituago dagoen formatua da: “Istorioek badute lehen zinematik sortzen zuen lilura hori sortzeko aukera. *The Sopranos* bezalako telesail batek, aparteko ekintzarik gabe, giro berezian sartzen zaitu, garai bateko *The Godfather* filmaren antzera. Zineman

Munduko aretoek une berean estreinatu ahal izango dute pelikula bera. Eta geroz eta ohikoagoa izango da gertakari garrantzitsuen zuzenekoak aretoetan proiektatzea

berriz, denetarik dagoen arren, lehen harritzen zintuena gaur egun *mainstream* edo komertzial bihurtu da. Epaimahaiari pelikula asko ikustea egokitu zait duela gutxi eta bada-go errepikatzen den estilo bat, ‘apurtzailea izango naiz teknika apurtzaileekin’, baina jada zaharkituta geratu dena: Lars Von Trier-en filmen kopia pila bat dago egun, eta ez dute ekarpen berririk egiten”.

Kontuak kontu, inork ez dauka etorkizuna irakurriko duen bola magikorik. Hollywoodeko gurutetako bik aurkako iragarpena egin dute: George Lucasek dio hemendik hogeit urtera inork ez duela aurrekontu handiko pelikularik egingo eta James Cameronek berriz, ekoizpen erraldoiak eta 3Da direla bidea –kasualitatez 200 milioi dolarreko filma prestatzen ari da, 3 dimentsiotan–. Joxe Portela ekoizleak ere, aurrekontu puztuagoak nahi ditu euskarazko zinemarentzat, pantaila handian ikusgarritasuna bilatzen duelako ikusleak, zerbait desberdina. Baina zuzendari frankotiratzaileen apustu apurtzaile eta interesgarrietarako zirrikituak beti izango ditu zinemak. Agian, Jaime Rosalesek dioen moduan, museoetan bukatuko du zinematik, baina bide berrietara egokitzea beste aukerarik ez du. Koldo Almandozen ustez, aldaketa baikorra da: “Joera daukagu negar egiteko, baina beste motatako enpresek ere egokitu behar izaten dute egoera berrietara; onerako izango da, jendeak ipurdia mugitu beharko du”.